

Generoko Adierazle-Sistemaren  
proposamena, bakearen, giza eskubideen  
eta memoriaren euskal politika publikoak  
diseinatu eta haien jarraipena egiteko



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACION INTERNACIONAL  
NAIQUARTERKO LANAKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA

Argitalpen hau *Trantsiziozko justizia eta kritika feminista: giza eskubideen urraketa larrien ondoriozko zigorgabetasun patriarkalaren aurkako* baliabideak Proiektuaren esparruan egin da. PRO-2018K30031. GLEAren laguntzarekin.



Generoko Adierazle-Sistemaren proposamena, bakearen, giza eskubideen eta memoriaren euskal politika publikoak diseinatu eta haien jarraipena egiteko  
2020



[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)  
[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU • Zubiria Etxea  
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81 • 48015 Bilbao  
Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU • Carlos Santamaria Zentroa  
Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia  
Tel.: 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU • Campuseko Liburutegia  
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

Itzultzailea: Iñigo Gallastegi Zorrilla  
Imprimatzailea: Printheus S.L.  
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.  
ISBN: 978-84-16257-74-4



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopia, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>



# Aurkibide orokorra

<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Abiapuntua</b>	<b>7</b>
2.1. Hasierako diagnostikoa	7
2.2. Gaur egungo egoera Euskadin	8
2.3. Euskadi Basque Country 2030 Agenda	9
<b>3. Euskadiko politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko oinarriak</b>	<b>11</b>
<b>4. Genero, Bake eta Segurtasun agendari lotutako nazioarteko tresnak</b>	<b>13</b>
4.1. CEDAW	13
4.2. 1325 Ebazpena	14
4.3. Istanbulgo Hitzarmena	15
4.4. 2030 Agenda	16
<b>5. Genero, bake eta segurtasuneko euskal agenda baterako genero-adierazleak</b>	<b>19</b>
5.1. Lehenetsitako nazioarteko tresnak	19
5.2. Alderdi kontzeptual eta metodologikoak	19
5.3. Adierazle-Sistema aplikatzeko jarraibideak	21
5.4. Adierazleen matrizea	22
<b>Bibliografia</b>	<b>29</b>
<b>Taulen aurkibidea</b>	
1. taula. Prebentzio-adierazleak	22
2. taula. Partaidetza-adierazleak	24
3. taula. Babes-adierazleak	26
4. taula. Errehabilitazio- eta erreparazio-adierazleak	27



# 1. Sarrera

Politika publikoetako genero-zeharkakotasuna edo *-mainstreaminga* botere publikoaren jardueraren ezinbesteko alderdi bilakatu da azken hamarkadetan, feministek erakundeen eremuan izan duten eraginari esker. Ildo horretan, 1995eko Beijingeko Adierazpena eta Ekintza Plataforma gertaera garrantzitsua izan zen emakumeen<sup>1</sup> eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan. Horrek lehen aldiz ezarri zuen politika publikoek genero-ikuspegia txertatu behar zutela. Harrezkerotik, genero-dimentsioa zeharkako printzipio bat da eta hala jasotzen dute nazioarteko, Europako, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko arau-esparruek.

Berdintasunaren arloko nazioarteko egitura juridikoa gorabehera, gatazka armatuko eta/edo indarkeria politikoko testuinguruetan, aldiz, genero-zeharkakotasuna ez da hainbeste ageri indarkeriaren ostean bake prozesuak, giza eskubideak eta memoria kolektiboa sustatzeko helburua duten politiketan. Euskadin, bake, giza eskubide eta memoria politika publikoen garapenarekin batera ez da genero-ikuspegia txertatzeko estrategia sendorik egon, bai ordea lankidetzaren politiken kasuan.

Adierazle-sistema honek aipatutako arloetako euskal politika publikoetan genero-ikuspegiaren txertaketa indartzeko tresna operatiboa izan nahi du, arlo horiek garrantzitsuak baitira gizartearentzat eta euskal erakundeentzat, estu lotutako bi eremuetan: "euskal gatazka" delakoarekin eta horren irtenbidearekin lotutako politikak, eta nazioarteko lankidetzako politikak, horien ardatz estrategiko bat gatazken prebentzioa eta irtenbidea eta bakegintza delarik<sup>2</sup>. Adierazle-sistema hau, bada, proposamen pilotua da, eta baliabide bat eskaintzen du Euskadik genero, bake eta segurtasun agendari lotutako nazioarteko tresna giltzarrietan ezarritako betebeharrekin betetzeko, ikuspegi integratzaile batetik.

Hala, politika publikoko tresnetan genero-ikuspegiaren txertaketa orientatzeko hainbat adierazle kuantitatibok eta kualitatibok osatzen dute tresna hau. Gure ustez, adierazle horiek indarkeriarik gabeko gizartearen eraikuntzan azterketak egiteko eta neurri zehatzak hartzeko informazio garrantzitsua emateko ahalmena dute. Hori dela eta, lan hau Eusko Jaurlaritzaren erakundeei eta organismoei zuzenduta dago batez ere, horiek garatzen eta koordinatzen baitituzte berdintasun, giza eskubide, memoria, bake eta lankidetzaren politikak.

Adierazle-Sistema, beraz, Eusko Jaurlaritzari zuzenduta dago, bai honek dituen eskumenengatik, bai bere politika publikoen irismen geografiko handiagatik. Horrek ez du esan nahi, ordea, beste

---

1 Horretan sartzen ditugu emakume gazteak eta neskek ere, sexu-generoaren zabaltasun osoarekin.

2 GLEA, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Gida Plana (2018-2022).

erakunde batzuek (foru aldundiak, udalak edo tokiko beste erakunde batzuk) ezin dutenik tresna hau erabili. Zentzu horretan, tokiko eragileek aipatutako arloetako politika publikoen sustapenean duten garrantzi handia aintzat hartzen dugu.

Lan hau, lau ataletan antolatu dugu. Lehenik, lan hau motibatzen duten arloetako plangintza estrategikoaren hainbat alderdi labur aipatzen ditugu. Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzaren jardunean genero-ikuspegia zeharkakotzeko printzipioaren inguruko arau-esparrua azaltzen dugu. Hirugarrenik, emakumeen eskubideekin eta genero, bake eta segurtasun agendarekin lotutako nazioarteko tresna nagusien artean, Euskadin aplikagarriak direnak aipatzen ditugu. Eta, azkenik, tresna honen oinarrian dauden arau-esparrua eta alderdi teorikoak eta metodologikoak azaltzen ditugu, eta proposatutako adierazleen taulak sartzen ditugu.

## 2. Abiapuntua

### 2.1. Hasierako diagnostikoa

Lan hau Euskadiren kasuan honako bi azterketa-dimentsio hauek landu zituen hasierako diagnostiko batetik abiatu zen: (i) genero-ikuspegiaren txertaketa-maila bakegintzako politika publikoetan; eta (ii) bakegintza-esparruaren txertaketa-maila berdintasun-politika espezifikoeetan. Horretarako, bederatzi plan autonomiko eta foral aztertu ziren, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak (aurrerantzean EJKo Idazkaritza Nagusia) X. Legegintzaldian (2012-2016) eta XI. Legegintzaldian (2016-2020) sortutako agiriei lehentasuna emanez. Hona hemen aurkikuntzetako batzuk:

1. Ezarritako plan eta programen genero-inpaktuari buruzko informaziorik eta/edo azterketarik ez dagoela –jendearen eskura–.
2. Bakeari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko politika publikoen joera orokor bat dagoela, emakume kategoria generoaren sinonimo gisa tratatzen duena. Hau da, genero-ikuspegia emakumeak gehitzeko modu gisa ulertzen da, baina ez zeharkakotasun-estrategia gisa, zehazki:
  - Genero-ikuspegiari buruzko jarraibideek oinarritzko lanketa bat islatzen dute, baina ez dituzte jasotzen gizonezkoen botere-formak eta horiekin lotutako indarkeria matxistak.
  - Oro har, emakumeen kolektiboa talde homogeen gisa aipatzeko joera dago, botere-harreman eta -praktiketarik eratorritako egoeren berezitasunak aipatu gabe (adina, egoera sozioekonomikoa, jatorria eta jaioterria, dibertsitate funtzionala, besteak beste).
  - Neurri txikiago batean beste diskriminazio modu batzuk aipatzen dira, hala nola arrazakeriari eta xenofobiari lotutakoak.
3. GLEAren Gida Plana da genero-ikuspegia argi eta garbi barne hartzen duen bakarra, eta erakunde feministak ahalduz eta haiei laguntzean oinarritzen du bere estrategia. Gainera, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia adierazten duen bakarra da.
4. Autonomia-erkidegoetako eta foru-aldundietako berdintasun-politikek gutxi aipatzen dituzte memoriaren, bakearen eta bizikidetzaren alderdiak. Ez dute bakea eraikitzeko esparrurik proposatzen, baina nazioarteko hitzarmenetatik datorren giza eskubideen

hizkuntza erabiltzen dute. Hitzarmen horien artean ditugu Emakumeen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeari buruzko konbentzioa (CEDAW) edo Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena).

5. Tresnek NBERen Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenari egiten diote erreferentzia, bakearen eraikuntzan emakumeek duten rolari buruzko arauak jorrazteko, baina ez dute esparru horri buruzko irakurketa ulerkorrik egiten, ezta, oro har, nazioarteko Genero, Bake eta Segurtasun Agendari buruzkoa ere.

## 2.2. Gaur egungo egoera Euskadin

2020ko uztailean, EJKo Idazkaritza Nagusiak giza eskubideen eta bizikidetzaren arloan 2017tik 2020ra bitartean sortutako dokumentuen bilduma argitaratu zuen. Bertan, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Kanpoko Ebaluazioa sartzen da, Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Ikasketen Institutuak (IECAH) egina. Hona hemen ebaluazio horren elementu batzuk, Adierazle-Sistemarekin duten loturagatik nabarmentzen ditugunak:

1. Ez egotea erabat zeharkako ikuspegi bat "ekintza zehatzak gaindituko dituen eta Plana osorik gizon eta emakumeen arteko berdintasunerantz bideratuko duena, esparru sektoriala edozein izanik ere" (Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, 2020: 168).
2. Genero-ikuspegia giza eskubideen agendan zentratzeko beharra: "ikuspegi global horren bitartez soilik joan baitaiteke ikuspegi sektorialetik harago, emakumei ez ezik, gizarte osoari ere eragiten dion arazo baten alderdi sozial, politiko, juridiko eta ekonomiko guztiak jorratu ahal izateko; hori guztia giza eskubideen urraketarik gabeko bizikidetzeta baketsua sendotzeko asmotan" (ibíd.).
3. 2030 Agenda berrestea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin batera lan egiteko eta politikak koherenteak izateko.
4. Berariaz adierazten denez, EJKo Idazkaritza Nagusiak "Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekiko lankidetzeta areagotu dezake, honek eginkizun horretarako aholkularitza-arlo bat baitu, edo bere saileko Berdintasunerako Unitatearekiko" (ibíd.).

Bilduma horretan jasotako beste agiri batzuk ere garrantzitsuak izan daitezke Adierazle-Sistema honekin duten loturagatik; adibidez, 2020ko ekaineko "Nazioarteko bakeari laguntzeko euskal programa"<sup>3</sup>. Horrek jardueraren hiru osagai nagusi azaltzen ditu: (i) euskal kasutik ateratako esperientziei buruzko oinarritzko dokumentu bat egitea, beste testuinguru batzuetan kontrastatzeko<sup>4</sup>, (ii) Nazioarteko Bakeari Laguntzeko Euskal Foroa sortzea, eta (iii)

---

3 Bertan adierazten denez, hura XII. Legegintzaldian garatu beharreko zirriborroa da.

4 Lan hau argitaratzerako ez da oinarritzko dokumentu hura argitaratu. Hasierako zirriborroa 153-156 orrialdeetan aurkitzen da eta horren edukian ez da ikusten atal nagusiek genero-ikuspegiaren azterketarik edo aipamenik dutenik.



Euskal Foro horren Lan Plana (Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia, 2020: 147-156).

XII. Legegintzaldian (2020-2024), Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako Saila sortu zen, eta sail horri honako arlo hauetako eginkizunak eta jardun-arloak esleitu zitzaizkion: berdintasun-politikak egitea, Justizia Administrazioaren funtzionamendurako baliabideak ematea, giza eskubideak eta bizikidetzak gauzatzeko baldintzak sustatzea, biktimen eta memoriaren politikak zuzentzea eta koordinatzea, eta Jaurlaritzak memoria historiko eta demokratikoaren arloan dituen politikak egitea, baita askatasunerako eskubidea egikaritzea ere. Sail honi atxikitzen zaizkio, halaber, Eusko Jaurlaritzako Idazkaritza Nagusia eta lehen Lehendakariaren zeuden hiru administrazio-erakunde autonomoak: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia<sup>5</sup>.

### 2.3. Euskadi Basque Country 2030 Agenda

Joan den XI. Legegintzaldian, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen. Bertan, Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)<sup>6</sup> tokian-tokian egokitzeko eta lurralde-dimentsioa sustatzeko konpromisoa jasotzen da<sup>7</sup>:

“Euskadi Basque Country 2030 Agendak islatzen du zer neurritan uztartzen diren Gobernu Programa eta beraren politika sektorialak 17 GJHekin lotutako helburu eta helmugekin; eta islatzen du, halaber, zer ekarpen egiten zaion zeregin horri. Era horretan, Gobernu Programa bat dator Nazio Batuen Erakundearen Agendarekin, horren espiritua bere egiten duelako, kontuan hartuta Garapen Jasangarriaren Helburuak ez direla planteatu zer egin behar dugun ezartzeko, baizik eta testuinguru unibertsal komun bat definitzeko eta, horri esker, lehentasunak ezartzeko gure lurralde-errealitatea kontuan hartuta” (Eusko Jaurlaritza, d.g.: 12).

2018-2020 aldirako Kanpo Harremanetako Planak, bere ekintza estrategikoen barruan aipatzen du Euskadi munduko erreferente gisa kokatzea, GIHak politika publikoetan txertatzeari dagokionez. Horretarako, bada, Agenda 2030 Euskadin ezartzea sustatzeko eginkizuna ematen dio Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari. Idazkaritza hori –Lehendakariari atxikita dagoena– sektore publiko eta pribatu guztiekin aliantzak modu koordinatuan eta batera egiteaz ere arduratzen da, honako hiru ildo nagusi hauetan: (i) nazioartean jardunbide egokiak erakartzea, (ii) Garapen Iraunkorrerako Helburuak maila eta sektore anitzetan zabaltzea Euskadin, eta (iii) Euskadi Basque Country Agenda nazioartean proiektatzea. Horri dagokionez:

5 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen: 14. artikulua, Lehen Xedapen Gehigarria eta Seigarren Xedapen Gehigarria.

6 Maiz, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) (itzultzailearen oharra).

7 18/2020 Dekretuaren 3.1 artikulua ezartzen du “2030 Agendaren ezarpena bultzatzea, hargatik eragotzi gabe agenda hori Jaurlaritzaren sektore-politiken bidez gauzatzea”.

"Idazkaritzak GIH arloan nazioartean jokabide onak erakartzeko lana egingo du, eta, Lehendakartzaren Idazkaritzarekin batean, euskal politika publikoan Euskadiren kasu konkretura aplikatu daitezkeen helburuen integrazioa erraztuko du. Horretarako, GIH ikusgaitasuna zabalduko du Jaurkitzearen barruan eta Jaurkitzearen erakundeetan, eta inplikaturik dauden eragile guztiak sentsibilizatuko ditu maila anitzeko ikuspegi batetik eta publikoa eta pribatua batera hartuz, Euskadi Basque Country 2030 Agenda bata lortzearen. Gainera, zeharkako eragileak erakarriko ditu eta GIH helburuen eztabaidan euskal gizarteko sektore guztien ordezkariak sartzera bultzatuko ditu (enpresa, hezkuntza, osasuna eta abar). GIH helburuak politika publikoetan sartu ondoren, Euskadiren Agenda propio hori halaber nazioartean zabaltzeko ahalegina egingo da, eredugarritzat har dadin eta beste herrialde eta eskualde batzuentzat nazioarteko erreferentzia izan dadin" (Eusko Jaurkitze, 2018: 25).

2020an Kanpo Harremanetarako Planaren bertsio eguneratua argitaratu zen. Horretan honako konpromiso hau adierazten da: "giza eskubideen eta pluraltasunaren errespetuan oinarritutako bake kultura eta elkarbizitza aldezteko indarrak batzen saiatu behar da nazioartean. Gainera, Eusko Jaurkitze prest egongo da nazioarteko erakundeekin lankidetzan espazioetan parte hartzeko eta giza eskubideen, gatazka konponketaren, biktimen eta bakearen inguruan edo bereizkeriaren, arrazismoaren, indarkeriaren, terrorismoaren eta gerraren aurka sortzen diren nazioarteko programetan parte hartzeko" (Eusko Jaurkitze, 2020: 43-44).

Bestalde, 2020ko azaroaren 26an Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-proiektuak Agenda 2030 onartzen du, eta, bereziki, genero-berdintasunari buruzko 5. helburua, Legearen arazoak horretan oinarritzen baitira. Hala, Agenda 2030 Euskadin jarduteko esparru bat da, eta nazioarteko betebeharrak guztiak indartzen ditu, emakumeen eskubideak babestu eta sustatzeko, gatazka armatuen berriazko esparruan eta bakea genero-ikuspegiarekin eraikitzean<sup>8</sup>.

---

8 *Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 20.3 artikulua jasotzen du nazioarteko tratatuak autonomia-erkidegoaren esparruan aplikatu behar direla, bakoitzak bere eskumeneko gaietan, hau da, herritarren oinarritutako eskubide eta betebeharren inguruan. Ildo beretik, ikus: Nazioarteko Itunen eta Akordioaren azaroaren 27ko 25/2014 Legearen 30.3 artikulua.*

### 3. Euskadiko politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko oinarriak

Euskadin *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak* ezartzen ditu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, genero-ikuspegia integratzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea, ordezkartza orekatua eta koordinazioa eta kolaborazioa. Genero-ikuspegia txertatzeari eta haren definizioari dagokienez, lege horren 3.4 artikulua honako hau xedatzen du:

“Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoretarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea”.

Genero-ikuspegia txertatzearen garrantzia aintzat hartu da Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoan, horrek berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko neurriak jasotzen baititu, 4/2005 Legearen eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren 10. helburuaren arabera (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila, 2017: 7, 80-82). Zehazki, 4/2005 Legearen IV. kapituluak ezartzen du euskal botere publikoek berdintasuna sustatu behar dutela administrazio-araudian eta -jardueran (planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk); horien artean, esku-hartze hori sustatzen duen organoak generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egin behar du administrazio-arau edo -ekintzetan<sup>9</sup>.

4/2005 Legearen 16. artikulua zenbait neurri jasotzen ditu botere publikoek estatistikak eta azterlanak egokitu ditzaten genero-ikuspegia modu eraginkorrean bermatzeko. Neurri horiek honako hauek dira:

---

9 Ikus: 4/2005 Legearen 18. eta 22. artikulua eta Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak, Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21ean onartuak.

- a. "Egiten dituzten estatistika, inkesta eta datu-bilketa guztietan sexu-aldagaia sistematikoki sartu".
- b. "Estatistikako eragiketetan adierazle berriak ezarri eta sartu, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, jomuga eta beharretan dauden aldeak, horien guztien adierazpena eta aztertuko den errealitatearekin duten elkarreragina hobeto ezagutzea posible egiteko".
- c. "Beste aldagai batzuen eragina ezagutzea posible egiteko beharrezkoak diren adierazleak eta mekanismoak diseinatu eta sartu, aldagaiok agertzeak bereizkeria anizkoitzeko egoerak sorrarazten baditu esku hartzeko eremuetan".
- d. "Sartutako aldagaiak sexu-aldagaia oinarri hartuta ustiatu eta aztertzeko adinako lagin zabalak aurkeztu".
- e. "Dauden datuak ustiatu; horrela, esku-hartzearen eremu ezberdinetan emakumeek eta gizonak bizi dituzten egoera, baldintza, jomuga eta premia ezberdinen berri eduki ahal izango da".
- f. "Gaur egun dauden estatistika-definizioak berrikusi eta, hala badagokio egokitu, emakumeen lana aintzatetsi eta baloratzen laguntzeko eta emakumeen zenbait kolektiboren estereotipazio negatiboa saihesteko".

Estatu mailan, *Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak*, bere 15. artikuluan, honako hau ezartzen du: " Emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko da botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun-izaerarekin. Administrazio publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratuko dute, euren arau-xedapenak ematean nahiz betetzean, esparru guztietako politika publikoak zehaztu eta horien inguruko aurrekontuak egitean, eta euren jarduera guztiak garatzean". Lege horren 20. artikulua ezartzen du botere publikoek honako hau bete beharko dutela: (i) Datu-bilketetan sexu-aldagaia sistematikoki sartzeari, eta (ii) Genero-rol, -dinamika eta -estereotipoetan dauden desparekotasunak eta askotariko diskriminazio-egoerak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleak eta jarraipen-mekanismoak diseinatzea.

Europa mailan, Europako Batzordearen 96/67 Komunikazioak Europar Batasunaren ibilbide-orria ezarri zuen Europako politiketan eta ekintzetan emakumeen eta gizonen berdintasuna txertatzeari dagokionez. Gaur egun, Europako Kontseiluaren Genero Berdintasunerako Estrategiak (2018-2023) bere 6. helburuan adierazten du estatu kideek aktiboki sustatu behar dutela generoaren zeharkakotasuna beren politiketan, ekintza-planetan eta erakunde-egituretan.

## 4. Genero, Bake eta Segurtasun agendari lotutako nazioarteko tresnak

Generoari, bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko tresnak egoteak esparru bat ematen du emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin bat datozen memoria, bake eta giza eskubide politika publikoak diseinatzeko Euskadin. Atal honetan, Adierazle Sistema hau eraikitzeke erabili diren tresna nagusiak azalduko ditugu.

### 4.1. CEDAW

CEDAW 1979an onartu zen<sup>10</sup> eta hura berresten duten estatuentzako esparru juridiko loteslea eskaintzen du, funtsezko berdintasuna sustatzeko eta emakumeen diskriminaziorik eza bermatzeko. CEDAW onartu zenetik 40 urtera, emakumeen eskubideen esparruko nazioarteko itun lotesle bakarra izaten jarraitzen du eta, hortaz, eztaba daezina da haren garrantzia, baita hark NBEren Segurtasun Kontseiluaren generoari, bakeari eta segurtasunari buruzko ebazpenei egindako ekarpen garrantzitsua ere (Rana, 2019).

CEDAW Batzordearen 30., 33. eta 35. Gomendio Orokorrek bereziki garrantzitsuak dira; izan ere, gatazka-egoeren aurretik, bitartean eta ondoren emakumeek pairatzen duten indarkeriaren egiturazko kausei aurre egiteko estatuak dituzten betebeharrak ezartzen dituzte, eta, hala, bat egiten dute GIH 5 (Genero Berdintasuna) eta GIH 16 (Bakea, Justizia eta Institutuzio Sendoak) helburuekin (Chinkin eta Yoshida, 2020: 10).

Gatazken prebentzioan eta gatazkako eta gatazka ondoko egoeran diren emakumeei buruzko 30. Gomendio Orokorrean, CEDAW Batzordeak indarkeria armatuko egoeretan –zentzu zabalean–, emakumeen eskubideak babestu, errespetatu eta bermatzeko hartu behar diren neurriak ezartzen ditu. Gainera, 28.b paragrafoan ezartzen da estatuak bermatu behar dutela Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan (NBE-SK) lortutako akordioek genero-ikuspegia txertatzen dutela eta CEDAWen jasotako eskubide guztiak kontuan hartzen dituztela. Hala, CEDAW Batzordeak NBE-SKren ebazpenak betetzen direla ere gainbegiratzen du, 1325 Ebazpenarekin lotuta, CEDAWen 18. artikuluan jasotako aldizkako jarraipen-txostenak aurkezteko prozeduraren arabera.

Emakumeen justiziarako sarbideari buruzko 33. Gomendio Orokorrek eremu horretan dauden oztopo nagusiak adierazten ditu, eta gatazka-egoeretan gertatutako sexu-indarkeriako kasuak

---

10 Espainiako Estatuak 1983an berretsi zuen.

prebenitzeko, ikertzeko, zehatzeko eta konpontzeko erakunde-erreforma guztiak hartzea gomendatzen du.

Emakumeen aurkako generoagatiko indarkeriari buruzko 35. Gomendio Orokorrean, CEDAW Batzordeak, 35.b paragrafoan, GIHak aplikatzeko nazioarteko lankidetzari buruzko neurriak hartzera bultzatzen ditu estatu kideak, bereziki GIH 5 eta GIH 16, baita GIH guztiak genero-ikuspegitik betetzeko plan nazionalak babestera ere, GIH guztiak genero-ikuspegiaren arabera betetzeko, betiere, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialari buruzko Batzordearen 60. bilkuraren ondorioekin bat etorritz.

## 4.2. 1325 Ebazpena

NBEren Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena, 2000. urtean onartua, erakunde horrek emandako lehena izan zen, eta gatazka armatuek emakumeengan duten eragin neurrigabea eta berezia aitortu zuen, baita gatazka horiek prebenitzeko eta konpontzeko eta bakea eraikitzeko eta sendotzeko duten funtsezko rola ere. 1325 Ebazpenak lotura zuzena ezartzen du emakumeen eskubideen eta bakeari eta segurtasunari eustearen artean. Bai NBE-SKren 1325 Ebazpenak, bai emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko hurrengoek<sup>11</sup>, berretsi egiten dituzte estatuek lehentasunezko lau eremutan giza eskubideen aldeko neurriak hartzeko dituzten betebeharrak (Mujerez en Zona de Conflicto, 2013: 190):

- Prebentzioa: gatazkak eta emakumeen aurkako egiturazko indarkeria eta indarkeria fisiko guztiak murriztea, bereziki sexu-indarkeria.
- Parte-hartzea: gatazkak prebenitzearekin, kudeatzearekin eta konpontzearekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeak eta haien interesak sartzea.
- Babesa: emakumeen segurtasuna, osasun fisikoa eta mentala eta segurtasun ekonomikoa bermatzea, eta giza eskubideak errespetatzea.
- Errehabilitazioa eta erreparazioa: emakumeen behar espezifikokoak kontuan hartzea gatazkako eta gatazka ondoko egoeretan.

1325 Ebazpena onartu zenetik, nabarmen handitu da gatazkako eta gatazka ondoko egoeretan emakumeen eskubideak babesteko eta sustatzeko esparrua, eta NBE-SKri dagokion esparrua gainditu da. Horren arrazoia da, alde batetik, gero eta erakunde gehiagok (nazioartekoak, eskualdekoak, nazionalak eta tokikoak) ezartzen dutela ebazpen hori, bereziki sexu-indarkeria prebenitzeari dagokionez, eta, bestetik, giza eskubideen mekanismoak erabiltzen direla, hala nola CEDAW Batzordea edo Giza Eskubideen Kontseilua, generoaren, bakearen eta segurtasunaren arloan nazioarteko betebeharrak zenbateraino betetzen ote diren jarraipena egiteko (Myrntinen et al., 2020: 28; NBE Emakumeak, 2015: 30, 349-364).

---

11 Ebazpenak: 1820 (2008), 1888 (2009), 1889 (2009), 1960 (2010), 2106 (2013), 2122 (2013), 2242 (2015), 2467 (2019), 2493 (2019) y 2535 (2020).

1325 Ebazpenari egindako kritika feministetako bat da gabeziak dituela zehaztapenari eta inplementazioari dagokienez, ekintza-plan nazionalen diseinuan eta aurkezpenean borondatezkoa delako, baita aurrekontu-esleipenik ez duelako ere (Peinado, 2013). Espainiako Estatuaren kasuan, Elkano Institutuak Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko II. Ekintza Plan Nazionalari (2017-2023) buruz egindako balorazioak erakusten du 1325 Ebazpenaren helburuen lorpenean eragin esanguratsua eta nabarmena berma dezaketen konpromiso-maila eta mekanismoak urriak direla (Solanas, 2017). Horrez gain, Ebazpenak "ez du inon aipatzen militarizazioaren eta emakumeen eskubideen urraketaren arteko loturarik, ezta haien bizi-baldintzak hobe ditzakeen neurri gisa gastu militarra murriztea ere, Beijingeko Adierazpen eta Ekintza Plataformak jasotzen duen bezala" (Mendia Azkue eta Guzmán Orellana, 2019: 15).

### 4.3. Istanbulgo Hitzarmena

Europa mailan, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren 2011ko Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) da emakumeen aurkako indarkeria modu zabalean jorratzen duen Europako lehen tresna loteslea<sup>12</sup>.

Istanbulgo Hitzarmenaren helburuen artean, honako hauek daude: (i) indarkeria prebenitzea, eta (ii) neurriak jasoko dituen esparru orokor bat ezartzea, indarkeriaren biktima diren emakume guztien eskubideak babesteko eta haiei laguntzeko, eta indarkeria horren adierazpen desberdinak jazartzeko ere, hala nola emakumeen genitalen mutilazioa, sexu-jazarpena eta ezkontza, esterilizazioa eta abortu behartuak.

Hitzarmenaren 2.3 artikulua araber, hitzarmena "bake-garaian nahiz gatazka armatuko egoeran aplikatuko da". Halaber, hitzaurrean berariaz aipatzen ditu gatazka armatuetan emakumeek pairatzen dituzten kalte zehatzak, baita gatazken aurretik eta ostean genero-indarkeriak izan dezakeen gorakada ere.

Gainera, Migrazioari eta Asiloari buruzko VII. kapituluko xedapenek ezartzen dituzte estatuek hiru eremutan hartu behar dituzten neurriak:

- (i) 59. artikulua. Egoiliar estatutua onartzeari buruz: indarkeriaren biktima izan diren eta bizirik atera diren emakumeei bizileku-baimen autonomoa bermatzea, beren egoiliar-estatutua bikotekidearen mende dagoen kasuetarako.
- (ii) 60. artikulua. Nazioarteko babesari buruz: emakumeen aurkako indarkeria jazarpen-modutzat hartzea, 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren araber. Halaber, harrera-prozedurak garatzeko genero-arekiko sentikorrak diren neurriak eta nazioarteko babesa eskatzen dutenei laguntzeko zerbitzuak egin behar dituzte.

---

12 Espainiako Estatuak 2014an berretsi zuen.

- (iii) 61. artikulua. Ez itzultzeko printzipioari buruz: arlo horretako nazioarteko betebeharrak errespetatzea, emakumeak ez daitezen itzuli beren bizitza arriskuan egon daitekeen edo tortura, tratu krudel, anker edo umiliagarriaren biktima izan daitezkeen herrialde batera.

Istanbulgo Hitzarmena 2014. urtean sartu zen indarrean, eta, beraz, berretsi duten estatuek barne-ordenamendu juridikoa egokitu behar dute, erabat aplikatzen dela bermatzeko. Euskadin, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak (2018-2021) esplizituki jasotzen ditu Istanbulgo Hitzarmeneko emakumeen aurkako indarkeriaren definizioak eta adierazpenak, eta Sentsibilizazioko eta Prebentzioko Programak Hitzarmena hobeto ezagutzea ekarri beharko duela zehazten du. Gainera, aurrez adierazi bezala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzeko Lege-Proiektuaren azalpenak adierazten du bat datorrela Istanbulgo Hitzarmenean ezarritako betebeharrekin, eta honako hau nabarmentzen du: "Istanbulgo Hitzarmenak eskatzen du legeak egitea genero-diskriminazioaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren artean dagoen lotura berretsiz, eta Estatuak behartzen ditu modu eraginkorren aplikatzera emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeak ahalduzko politikak, emakumeek generoa dela-eta pairatzen duten indarkeria ezabatzeko".

## 4.4. 2030 Agenda

2030 Agendaren oinarritzko premisa giza duintasunean eta "inor atzean ez geratzea" bermatzean oinarritzen da. Garapena, bakea eta segurtasuna barne hartzen dituen gizateriarentzako agenda unibertsal gisa planteatzen da: "Garapen iraunkorra ezin da errealitate bihurtu bakea eta segurtasuna egon gabe, eta bakea eta segurtasuna arriskuan daude garapen iraunkorrik gabe" (NBEren Batzar Nagusia, 2015: 35).

Ildo beretik, 2017an, NBEren Batzar Nagusiak NBE sistemaren garapenerako erakunde bakoitzaren lanean 2030 Agenda txertatzearen garrantzia azpimarratu zuen eta berriz ere nabarmendu zuenez "garapen iraunkorrak gatazkak baretzeko eragin positiboa izan dezake [...] eta sistemaren [NBE] erantzun integral bat funtsezkoa da eraginkortasun eta efikazia handiagoz erantzuteko eta [GHIak] lortzeko" (NBEren Batzar Nagusia, 2017: 8. eta 14. paragrafoak). Halaber, Garapenean Laguntzeko Batzordeak (GLB) aitortu zuen hauskortasunak, krisiek eta gatazka armatuek arriskuan jartzen dutela Garapen Iraunkorrerako Helburuak betetzea, eta, horregatik, adierazi zuen beharrezkoa dela lankidetzaren, koherentzia eta osagarritasuna indartzea eragile humanitarioen garapen eta bake mandatuen artean, maila guztietan (DAC, 2019)<sup>13</sup>.

2030 Agendaren beste alderdi azpimarragarri bat da Nazio Batuen Gutunaren eta giza eskubideei buruzko nazioarteko itunen (CEDAW barne) helburu eta printzipioetan oinarritzen dela, eta

---

13 Gatazken testuinguru aldakorrek agerian utzi du "laguntza humanitaria, garapen-programak eta bakea finkatzea ez direla segidako prozesuak, aldi berean gauzatu behar direla" (Oxfam Internacional, 2019: 1). Horri "lotura hirukoitza" esaten zaio, eta nazioarteko eragileek krisialdi baten aurretik, bitartean eta ondoren pertsonen zaurgarritasunari modu koherentean heltzeko egiten dituzten ahaleginen jarraipena da (Howe, 2019). Nazioarteko erakunde hainbat jarduera-eremu artikulatzean, hala nola garapena, bakea eta ekintza humanitaria, agertoki berriak marrazten dira bake-prozesu iraunkorrak behin betiko bultzatuko dituzten politika koherenteak bultzatzeko (WILPF, 2019).



berresten duela estatuek horiek errespetatu, babestu eta sustatzeko duten erantzukizuna (NBERen Batzar Nagusia, 2015: 10., 11. eta 12. paragrafoak). Beraz, Garapen Iraunkorrerako Helburuen inplementazioak lotura estua du giza eskubideen estandarrekin.

2030 Agendari dagokionez, nazioarteko mugimendu feministak hiru kritika nagusi egiten ditu: (i) ez du genero-berdintasuna sartzen patriarkatua errotik kentzera bideratutako eraldaketa indibidual eta kolektiborako prozesu autonomo gisa; (ii) ez du esplizituki ezartzen emakumeen eskubideen, genero-berdintasunaren eta esparru ekonomiko neoliberalaren artean dagoen lotura zuzena; eta (iii) ez du helburuei jarraipena egiteko mekanismo sendorik sortzen (baliabideak eta estrategiak) (Domínguez-Serrano eta Espinosa Fajardo, 2015; Struckmann, 2018)<sup>14</sup>.

---

14 Horren gainean, mundu osoko hainbat erakunde feministak 2030 Agendaren eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen aurrean posizionatzeko egindako dokumentua ere kontsulta daiteke: *Justicia de género, económica, social y ecológica para el desarrollo sustentable. Comunicado feminista para el Post 2015*: [http://www.graypanthersnyc.org/archive/accomplishments/declaracion\\_feminista\\_post\\_.pdf](http://www.graypanthersnyc.org/archive/accomplishments/declaracion_feminista_post_.pdf).



## 5. Genero, bake eta segurtasuneko euskal agenda baterako genero-adierazleak

### 5.1. Lehenetsitako nazioarteko tresnak

Adierazle-sistema hau diseinatzeko funtsezko oinarriak CEDAWetik eta Istanbulgo Hitzarmenetik eratorritako betebeharrak dira, batez ere, honako arrazoi hauengatik:

- (i) biak emakumeen eskubideei buruzko hitzarmen espezifikoak dira;
- (ii) emakumeen mendeko posizioaren inguruan gizarte- eta kultura-aldaketa sustatzeko neurriak ezartzen dituzte;
- (iii) lotesleak dira, hau da, nahitaez bete behar dira Euskadin;
- (iv) jarraipena egiteko eta aldizkako txostenak aurkezteko mekanismoak dituzte eta gizarte zibileko erakundeek zuzenean parte har dezakete horietan; eta
- (v) gatazka armatuko egoeretan ere aplika daitezke.

Gainera, adierazle-sistemaren diseinuan CEDAW eta Istanbulgo Hitzarmena bezalako tresnak lehenesteak aukera ematen digu NBEko Segurtasun Kontseiluan emakumeen eskubideak isilpean gordetzeko dagoen joera hausteko, eta babes-estandarrak zabaltzeko, hauek gatazkako eta gatazka ondoko egoeretan emakumek bizi dituzten esperientzien aniztasuna landu ditzaten, eta ez soilik sexu-indarkeria (Patten, 2018).

Osagarri gisa, kontuan hartzen ditugu 1325 Ebazpenean proposatutako dimentsio eta jarduerar-datz nagusiak (prebentzioa, parte-hartzea, babes, errehabilitazioa eta leheneratzea), baita 2030 Agenda ere, aztertzen ari garen gaian duten espezifikotasun-mailagatik eta estatuko zein estatukoak ez diren eragileak barne hartzen dituen zabaltasunagatik.

Hori oinarri hartuta, proposatutako adierazleek Euskadiko politika publikoen tresnek eta Genero, Bake eta Segurtasun Agendarekin zerikusia duten nazioarteko betebeharrak duten lotura azpimarratzen dute.

### 5.2. Alderdi kontzeptual eta metodologikoak

Genero-adierazleak zentzu zabalean ulertzen dira. Alde batetik, gizarte-desberdintasuneko egoera eta posizio desberdinei buruzko informazioa ematen duten tresna espezifiko gisa, honako hauei dagokienez: lanaren banaketa sexuala, indarkeria matxistaren adierazpenak eta dimentsioak, ahalduntze-eremuak eta -prozesuak, eta, azkenik, baliabideen eskuragarritasuna eta kontrola (Global e-Quality, 2010). Bestalde, sexuaren arabera bereizitako datuetatik harago doazen alderdiak neurtzeko eta balioesteko metodo espezifikotzat hartzen dira, hau

da, emakumeen identitateen eta egoeren aniztasuna islatzen duen ikuspegi intersektionaletik neurtzeko metodotzat (Gilleri, 2020).

Gatazkako eta gatazka ondoko egoeretako emakumeen eskubideen arloan genero-adierazleak definitzeak dakarren ekarpen kontzeptuala funtsezko hiru premisatan oinarritzen da: (i) generoa emakumeekin soilik identifikatzea gainditzea, (ii) "emakumeak" gizarte-taldearen homogeneotasuna haustea, eta (iii) botere sozial eta politikoarekin, gaitasun sozioekonomikoekin eta indarkeriarik gabeko bizitzarekin lotutako eskubideen dimentsioak identifikatzea. Hori oinarri hartuta, adierazle berriak sortu behar direla uste dugu, giza eskubideen erabileran aurrera egiten dugunaren seinaleak hobeto ulertzen lagunduko dutenak.

Alde batetik, azaldu dugun bezala, adierazle-sistema hori nazioarteko betebeharren betetze-maila neurtzean oinarritzen da eta, hortaz, batez ere giza eskubideei buruzko hitzarmenak ezartzearen jarraipena egiteko diseinatutako metodologia erabiltzen dugu; zehazki:

- NBE: Giza eskubideen adierazleak. Horiek neurtzeko eta aplikatzeko gida.
- GREVIO: Istanbulgo Hitzarmenaren ezarpena monitorizatzeko gidaliburua eta Hitzarmeneko xedapenak inplementatzeko legegintza-neurriak eta beste motako neurriak hartzeari buruzko galdetegia.
- Emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko, zehatzeko eta desagerrarazteko Amerika arteko Konbentzioari (Belém do Pará Konbentzioa) jarraipena emateko mekanismoa (Amerikako Estatuaren Erakundea): Belém do Pará Konbentzioaren inplementazioa neurtzeko helburuz prozesuaren adierazle-sistema aplikatzeko gida praktikoa.

Bestalde, hemen proposatutako adierazle gehienak nazioarteko eta nazioarteko hainbat dokumentutan aurrez erabilitako adierazleetatik elikatzen dira, zehazki: Nazio Batuetako idazkari nagusiak emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruz egindako txostena (S/2010/498); bakea eraikitzei buruzko plan estrategikoak; 1325 Ebazpena ezartzeko planak (adibidez, Espainiako Estatuko Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 2017-2023 aldirako II. Ekintza Plan Nazionala eta Europar Batasunaren 2019-2024 Ekintza Plana); Istanbulgo Hitzarmenaren eta CEDAW Batzordearen 30. Gomendio Orokorren jarraipen-txostenak; eta NBEko Ekonomia Gaietarako Sailaren Gutxieneko Genero Adierazleen ekimena. Hautaketa horri esker, euskal politika publikoek Genero, Bake eta Segurtasun Agendarekin duten koherentzia-, osagarritasun- eta egokitasun-maila jakin daiteke, beste herrialde eta eskualde batzuekin alderatuta.

Gainera, lehenetsuna eman diegu kausazko loturak neurtzeko, ebaluatzeko eta ezartzeko aukera ematen duten adierazleei, bai eta politika publikoak egiten eta horiei buruzko erabakiak hartzen laguntzen dutenei ere (Grasa, 2010: 132-135).

Azkenik, giza eskubideak gauzatzeko izandako konpromiso-, ahalegin- eta emaitza-maila neurtzeko, kontuan hartzen dugu Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandatariaren Bulegoak hiru kategoriatan sailkatzen dituela adierazleak: egiturarenak, prozesuarenak eta emaitzenak (Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandataria, 2012: 38-42). Kasu honetan, honela egokitu ditugu:

- (i) Egiturarenak: horien artean, bereizten ditugu, alde batetik, izaera substantibokoak, erakundeek bazterkeriaren eta diskriminazio interseksionalaren egitura hierarkikoak eraldatzeko sortutako baldintzak adierazten dituztenak, eta, bestetik, formalak, giza eskubideak sustatzeko oinarrizko eta beharrezko tresna legalak hartzea eta mekanismo instituzionalak sortzea adierazten dutenak.
- (ii) Prozesuarenak: eskubideak bermatzen dituzten erakundeek beren betebeharrak eta konpromisoak emaitzak eman ditzaten egindako ahaleginak neurtzen dituzte. Aurrerapen-mailaren jarraipena egiteko tarteko urrats gisa ulertzen dira.
- (iii) Emaitzenak: Giza eskubide baten gauzatzeko-maila testuinguru jakin batean adierazten duten lorpen indibidualak eta kolektiboak islatzen dituzte.

Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzari atxikitako sail, organo edo erakunde bakoitzak berdintasunaren, memoriaren, giza eskubideen, bakearen eta lankidetzaren arloan dituen plan estrategiko, ekintza-plan eta oinarrizko ildoen arabera, adierazle batzuk prozesuarenak edo emaitzenak izan daitezke.

### 5.3. Adierazle-Sistema aplikatzeko jarraibideak

Dokumentu hau proposamen pilotu bat den aldetik, lehen fase honetan Adierazle-Sistemak oinarrizko ildo bat sortuko duela uste dugu bakegintzari, memoriari eta giza eskubideei buruzko euskal politika publikoetan genero-ikuspegia zeharkakotzeko. Horrela, gai horietan genero-berdintasuna lortzeko bidean izandako aurrerapenak eta oztopoak ezagutu ahal izango dira. Horri lotuta, adierazle-tresna hori proposamen dinamikoa da, pixkanaka hobetzera irekia, egiten diren jarraipen- eta ebaluazio-prozesuen arabera.

Esan bezala, Adierazle-Sistema lau eremuren inguruan eraikitzen da, 1325 Ebazpenak proposatzen dituen jarduera-ardatz nagusiak erreferentziatuz hartuta. Horregatik, lau taula aurkezten dira, ardatz bakoitzeko bana: prebentzioa, parte-hartzea, babesa, eta errehabilitazioa eta erreparazioa. Gure ustez, adierazle bakoitzaren neurketarekin batera, genero-ikuspegiaren zeharkakotasunari buruzko azterketa bat egin behar da, honako irizpide hauetan oinarrituta (Lombardo eta Meier, 2016):

- (i) Bere edukia: bere helburua genero-berdintasuna bera denean.
- (ii) Bere egitura: bere kausak lantzen direnean eta desparekotasunak sortzen dituzten hierarkiak ezabatzen.
- (iii) Bere izaera interseksionala: diskriminazio ugariak lantzen direnean.
- (iv) Bere prozesuak: ahalduntzea, eraldaketa progresiboa eta parte-hartzea eragiten dutenean.

Azkenik, proposatutako adierazleetako asko kuantitatiboak badira ere, izaera kualitatiboko zenbait ere sartu ditugu. Horiek neurtzeko tresna espezifikoak sortu behar dira, kualitatiboak hauek ere (besteak beste, banakako edo talde elkarrizketak dituzten ikerketak eginez).

## 5.4. Adierazleen matrizea

1. taula. Prebentzio-adierazleak

Eremua: Genero-ikuspegia txertatzea gatazken prebentzioan eta konponbidean eta bakearen eraikuntzan		
Egituraren adierazleak	Prozesuaren adierazleak	Emaitzen adierazleak
Emakumeen eskubideen aldeko nazioarteko tresnak Eusko Jaurlaritzaren politika publikoetan sartzea.	Indarkeria matxistaren prebentziorako politiketara bideratutako ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak) eta aurrekontuaren proportzioa.	Indarkeria matxistaren dimentsioei eta moduei buruzko diagnostiko integralak egotea.  Berdintasun-politiketako aurrekontuaren handitze-maila.  Indarkeria matxista prebenitzeko politiken eta baliabideen eraginkortasunari eta irismenari buruzko azterlanen kopurua.
Genero, Bake eta Segurtasun Agendaren nazioarteko esparrua txertatzea autonomia-erkeiddegoko araudian	Genero, Bake eta Segurtasun Agendara bideratutako ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak) eta aurrekontuaren proportzioa.  Eusko Jaurlaritzaren berdintasunaren, giza eskubideen, bakearen eta memoriaren arloetako politikez arduratzen diren politikarien eta teknikarien kopurua eta hauek Genero, Bake eta Segurtasun Agendan duten prestakuntza, ordutan neurtuta.	Eusko Jaurlaritzak Genero, Bake eta Segurtasun Agendaren defentsan egindako parte-hartze eta adierazpen ofizialen kopurua eta eremu-mota.  Eusko Jaurlaritzaren berdintasunaren, giza eskubide, bakea eta memoria politiken ardura duten politikarien eta kontratatutako teknikarien artean, CEDAWtik, Istanbulgo Hitzarmentetik, 1325 Ebazpenetik eta 2030 Agendatik sortutako nazioarteko betebeharrak ezagutzen dituztenen proportzioa <sup>15</sup> .  Agenda 2030en jarraipenerako txostenen kopurua, GIH 5 eta GIH 16 integralki garatzen dituztenak, Genero, Bake eta Segurtasun Agendari dagokionez.
Genero-ikuspegia zeharkakatzea giza eskubide, memoria eta bake politiketan <sup>16</sup> .	Generoko eta sexu-aniztasuneko ikuspegia duten giza eskubide, memoria eta bakea politiketan disemnatutako ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).	Generoko eta sexu-aniztasuneko ikuspegia duten giza eskubide, memoria eta bake politiketan gauzatutako jarduera kopurua.  Giza eskubide, memoria eta bake politika publikoen tresnek duten genero-inpaktuari buruzko txostenen kopurua.

<sup>15</sup> Eusko Jaurlaritzak arlo horietan kontratatutako langile guztiei dagokie, haien zerbitzuetan duten administrazio- edo lan-arabidea alde batera utzita. Adierazleetan "proportzioari" buruzko aipamenak jardueraren egoera, baldintza eta aldi zehatzei dagokienez ulertu behar dira.

<sup>16</sup> Genero-ikuspegiaren zeharkakotasun-irizpidea dokumentu honen 5.3 atalean adierazitakoekin bat dator.

<p>Berdintasun, giza eskubide, memoria, bake eta lankidetzaren politikak arduratu dituen Eusko Jaurlaritzari atxikitako sail, organo edo erakunde arteko koherentzia- eta osagarritasun-maila, Genero, Bake eta Segurtasun Agendaren inguruan.</p>	<p>Genero, Bake eta Segurtasun Agendaren politikari buruzko ekintzak koordinatzeko eta antolatzearen sektore arteko eta erakunde arteko (gobernu barrukoak) eremuak dauden.</p>	<p>Berdintasun, giza eskubide, memoria, bake eta lankidetzaren politikak arduratu dituen Eusko Jaurlaritzari atxikitako organo, sail eta erakundeek genero-agendari buruz batera egindako ekintzen kopurua.</p>
<p>Euskal enpresa nazioartekotuek jarduten duten herrialde eta/edo lurraldeetan emakumeen eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzeko arau-esparru autonomiko bat egotea<sup>17</sup>.</p>	<p>Euskal enpresak nazioartekotzeko politikari Genero, Bake eta Segurtasun Agendaren esparruarekin duten loturaketa-maila.</p>	<p>Nazioartekotutako euskal enpresen jardueren genero-inkapertuari buruzko txostenen kopurua, bereziki indarkeria-maila handiko testuinguruetan jarduten duten enpresenak.</p> <p>Nazioartekotutako euskal enpresen jardueren giza eskubideetan duten eraginari buruzko txostenen kopurua, bereziki indarkeria-maila handiko testuinguruetan jarduten duten enpresenak.</p> <p>Euskal arma-sektoreko enpresen giza eskubideen nazioarteko estandarrekin bat datozen Jokabide-Kodeak bete dituzten Eusko Jaurlaritzak gauzatutako neurrien kopurua eta mota.</p>

17 Enpresa transnazionalentzako erregulazio juridikoak –lurralde kanpoko betebeharren bitartekoa– giza eskubideen estandarrek aplikatzen ditu, estatuei zein enpresei atzerriko jardueren garapenean behar bezalako arduraz jardun dezatela exijitzeko, eta erantzukizun zibila eta penala ezarri ahal izateko enpresa horiek eta haien filialek giza eskubideen urraketetan parte hartzen badute. Mota horretako betebeharrak kontrolerako, kontuak emateko, justiziara iristeko eta biktimei ordaina emateko mekanismoak diseinatzeko laguntzen dute. Nazioz gaindiko enpresen jardueren gainbegiratzeko lurralde kanpoko betebeharrak arautzeari buruz, ikus, adibidez, 24. Gomendio Orokorra, estatuek Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren arabera dituzten betebeharrak buruzkoa.

## 2. taula. Partaidetza-adierazleak

Eremua. Prebentzioarekin, gatazkekin eta bakearen eraikuntzarekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartze esanguratsua sustatzea

Egituraren adierazleak	Prozesuaren adierazleak	Emaitzen adierazleak
Erakundeen aldetik bakearen, giza eskubideen eta memoriaren arloetan emakumeek duten parte-hartzearen eta esperientziaren aintzatespen maila.	Bake, giza eskubide eta memoria politikan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sail, zuzendaritza, idazkaritza edo erakunde bakoitzak emakumeek eremu horietan duten parte-hartzea eta esperientzia aintzat hartzeko eta baloratzeko neurriei ematen dien aurrekontua, aurrekontu osoaren proportzio gisa.	Emakumeek bakearen, giza eskubideen eta memoriaren arloetan duten parte-hartzea eta esperientzia aintzat hartzeko eta baloratzeko egindako ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).
Emakumeen parte-hartze sozial eta politikari buruzko nazioarteko tresnen txertatze-maila.	Eusko Jaurlaritzako bake, giza eskubide eta memoria politikan eskumena duten sailetan, zuzendaritzetan, idazkaritzetan edo erakundeetan emakumeen lidergoa sustatzeko hartutako neurrien kopurua.	Eusko Jaurlaritzako bake, giza eskubide eta memoria politikan eskumena duten sail, zuzendaritza, idazkaritza edo erakundeetako emakumeen proportzioa <sup>18</sup> .
	Bake, giza eskubide eta memoria politikan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailetan, idazkaritzetan edo atxikitako erakundeetan genero-ikuspegidun lidergoak eta kudeaketa sustatzeko hartutako neurrien kopurua.	Genero, Bake eta Segurtasun Agendarekin lotutako gaietan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailetan, idazkaritzetan edo atxikitako erakundeetan askotariko emakumeen (adinari, gaitasunei, arraza-jatorriari, hiri- edo landa-jatorriari, estatus sozioekonomikoari eta abarri dagokienez) parte-hartzea bultzatu duten ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak)  Genero, Bake eta Segurtasun Agendarekin lotutako gaietan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailetan, idazkaritzetan edo atxikitako erakundeetan kargu publikoak dituzten teknikarien eta politikarien aniztasun maila (adinari, gaitasunei, arraza-jatorriari, hiri- edo landa-jatorriari, estatus sozioekonomikoari eta abarri dagokienez).

<sup>18</sup> Erakunde horietan kontratatutako pertsona guztiekiko proportzioa.



<p>Esparru autonomikoa gobernu onari, gardentasunari eta parte-hartzeari buruzko nazioarteko estandarretara egokitze-maila.</p>	<p>Emakumeen eta feministen erakundeek bakearen, giza eskubideen, memoriaren eta berdintasunaren arloko politika publikoen plangintzan parte har dezaten sustatzeko hartutako neurrien kopurua.</p> <p>Emakumeen eta feministen erakundeek zuzendutako bakearen, memoriaren eta giza eskubideen arloko diru-laguntza publikoen proportzioa (talde bakoitza osatzen duten emakumeen profilararen eta motaren arabera xehatuta).</p> <p>Genero-berdintasuna sustatzeko giza eskubideekin, memoriarekin eta bakearekin lotutako proiektuetara bideratutako diru-laguntza publikoen proportzioa.</p>	<p>Genero, Bake eta Segurtasun Agendari buruzko erabakiak hartzeko gune instituzionaletan kalitatezko parte-hartzea (hitza eta botoa) duten emakumeen eta feministen erakundeen kopurua.</p> <p>Genero, Bake eta Segurtasun Agendari buruzko erabakiak hartzeko gune instituzionaletan kalitatezko parte-hartzea (hitza eta botoa) duten emakume migrazioaileek, errefuxiatuek eta asilo-eskatzailaiek espezifikoki osatutako taldeen kopurua.</p> <p>Genero, Bake eta Segurtasun Agendari lotutako partaidetza-eremu instituzionaletan emakumeen eta feministen erakundeek aurkeztutako proposamenen artean onartutako kopurua.</p> <p>Emakumeen eta feministen erakundeen pertzepzioa, eremu instituzionalaren irekiera-mailari eta horrek Genero, Bake eta Segurtasun Agendari dagokionez duen eragin-mailari buruz.</p> <p>Emakumeek bakearen eraikuntzan bitartekari, negoziatzaile eta aditu gisa parte hartzea bultzatzen duten onartutako proiektuen kopurua.</p> <p>Giza eskubideen, memoriaren eta bakearen nazioarteko foroetan emakumeen parte-hartzea bermatzen duten onartutako proiektuen kopurua.</p>
<p>Eusko Jaurlaritzak erabakiak hartzeko prozesuetan duen harmen-mailari eta inklusio-gaitasunari buruzko pertzepzio soziala (Jaurlaritzarekiko konfiantza eta erakunde funtzionamenduari buruzko iritzia).</p>	<p>Genero, Bake eta Segurtasun Agendarekin lotutako informazio eguneratua eta estrategikoa eskuratzeko bermatzen duten prozesuen eta/edo protokoloen kopurua.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzak erabakiak hartzeko prozesuetan duen harmen-mailari eta inklusio-gaitasunari buruzko pertzepzio soziala (Jaurlaritzarekiko konfiantza eta erakunde funtzionamenduari buruzko iritzia).</p>

### 3. taula. Babes-adierazleak

Eremua. Gatazkako eta gatazka ondoko egoeretan emakumeen giza eskubideak babestea eta errespetatzea

Egituraren adierazleak	Prozesuaren adierazleak	Emaitzen adierazleak
Emakumeen eskubideen benetako erabiltze-maila.	Emakumeen eskubideak baliatzeko dauden oztopoak ezabatzeke ekimeneen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).	Genero Berdintasunaren Indizea (EUSTAT).
Istanbulgo Hitzarmenarekin eta CEDAWrekin bat datorren arau-esparru autonomikoa.	Genero, Bake eta Segurtasun Agendari lotutako plangintza estrategikoaren ardura duten politikariek eta teknikariek duten ezagutza-maila, emakumeek justiziara iristea eragozten duten oztopoei buruz.	Emakumeek beren giza eskubideen errespetuari eta bermeari buruz eta eremu publiko eta pribatuaren duten segurtasunari buruz duten pertzepzioa.
	Emakumeen eskubideak babesteko nazioarteko esparrua ikuspegi intersektionalarekin garatzen duten ekimeneen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).	Indarkeria matxistaren prebalentzia Euskadin (adibidez, indarkeriagatik eta diskriminazioagatik aurkeztutako salaketen kopurua, prozesu judizialen kopurua eta indarkeria-kasuetako epaien emaitzak – absolutiozkoak/zigorrezkoak, pertsonen salerosketaren biktimen kopurua sexuaren, adinaren eta esplotazio-moduaren arabera, etab.).
	Indarkeria matxistari aurre egiten dieten pertsonen erantzun integrala, koordinatua eta genero-ikuspegiduna ematen dieten ekimeneen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).	Indarkeria matxistatik bizirik atera eta Eusko Jaurlaritzaren arreta-baliabideak eta -zerbitzuak eskatzen dituzten emakumeen kopurua.
	Indarkeria matxista pairatzen duten emakumei arreta integrala emateko aurrekontu autonomikoa, guztira.	Indarkeria matxistatik bizirik atera diren eta Eusko Jaurlaritzaren arreta-baliabideak eta -zerbitzuak eskatzen dituzten emakumeen pertzepzioa, baliabide eta zerbitzu horien nahikotasunari eta kalitateari buruz.
	Emakumeen ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-eskubideak urratzen dituzten jarduerak diskriminatzaileen aurrean babes espezifikoa ematen duten ekimeneen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).	Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programek hartutako emakume atzeritarren kopurua.
		Giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen kopurua Euskadin (ekintzaile feministak eta LGBTI ekintzaileak barne).
		Gatazkako eta gatazka ondoko testuinguruetako sexu- eta genero-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak babesteko eta haien laguntzeko egindako jardueren kopurua.
		Emakumeen ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-eskubideak urratzen dituzten diskriminazio-jokabideen aurrean babes espezifikoa ematen duten jardueren kopurua.

4. taula. Errehabilitazio- eta erreparazio-adierazleak

Eremua. Genero-ikuspegia txertatzea gatazkatik bizirik atera diren biktimak birgaitzeko eta erreparatzeko neurriak zehaztean eta ezartzean		
Egituraren adierazleak	Prozesuaren adierazleak	Emaitzen adierazleak
Egiari, justiziari, erreparazioari eta ez errepikatzeko bermeei buruzko nazioarteko esparruaren aplikazio-maila, genero-ikuspegiarekin, hainbat indarkeria-motaren biktimei eta bizirik iraun dutenei.	Indarkeria matxistaren biktimak birgaitzeko eta erreparatzeko egindako ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).	Indarkeria matxistaren biktimek eta bizirik atera direnek errehabilitazio-eta erreparazio-neurri instituzionalei buruz duten pertzepzioa.  Indarkeria matxistaren biktimek eta bizirik atera direnek beren autonomia integralaren mailari buruz duten pertzepzioa (osasuna, hezkuntza, gaitasun ekonomikoa, gai pribatuei eta publikoei buruzko erabakiak hartzeko ahalmena).
	Genero-ikuspegia txertatzen duten ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak) emakume migratzaileak, errefuxiatuak eta asilo-eskatzailak hartzeko eta gizarteratzeko.	Euskadin gizarte-zerbitzuetarako sarbidea duten emakume migratzaileen, errefuxiatuen eta asilo-eskatzailen kopurua.  Euskadin enplegua duten emakume migratzaileen, errefuxiatuen eta asilo-eskatzailen kopurua.
	Euskadin bakea eraikitzeko adostasun politiko eta sozialak genero-ikuspegiarekin bilatzeko eremuak edo mekanismoak egotea.	Genero-arrazoiengatik nahitaez lekualdutako emakumei eta LGBTI pertsoneri laguntzeko egindako jardueren kopurua.  Euskal gatazkarekin zerikusia duten biktima guztien aintzatespen-mailari buruzko gizarte-pertzepzioa.  Euskadin indarkeria politikotik bizirik atera diren emakumeak birgaitzeko eta erreparatzeko egindako ekimenen kopurua (planak/programak/proiektuak/ekintzak).
		Emakumeek gatazketan eta bakearen eraikuntzan duten esperientzia aintzat hartzen eta baloratzen duten oroitzapenezko ekintzen kopurua (datak, memorialeak, etab.).  Euskal gizarteak bake, memoria eta giza eskubide politikan generoa txertatzeari buruz duen pertzepzioa.



## Bibliografia

Álvarez Rubio, J. J. et al (2019). *Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundeen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko*, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren enkarguz egina.

[https://bideoak2.euskadi.eus/2019/11/18/news\\_58411/Dictamen\\_eus.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2019/11/18/news_58411/Dictamen_eus.pdf)

Barbeito Thonon, C., Redondo de la Morena, G. eta Tomás Collantes, N. (2007). *La construcción de paz aplicada. Claves para incorporar una perspectiva de construcción de paz en los proyectos de intervención internacional en zonas de conflicto armado y/o tensión*, Quaderns de Construcció de Pau, 1. zkia, Escola de Cultura de Pau.

<https://escolapau.uab.cat/img/qcp/qcp01.pdf>

CEDAW Batzordea (2013). 30. Gomendio Orokorra, gatazken prebentzioan, gatazkako eta gatazka ondoko egoeretan diren emakumeei buruzkoa.

Chinkin, C. eta Yoshida, K. (2020). *40 years of the Convention on the Elimination of all forms of Discrimination Against Women*. Center for Women, Peace and Security.

<https://www.lse.ac.uk/women-peace-security/assets/documents/2020/LSE-WPS-40-Years-of-CEDAW.pdf>

DAC (2019). DAC Recommendation on the Humanitarian-Development-Peace Nexus.

<https://legalinstruments.oecd.org/en/instruments/OECD-LEGAL-5019>

Domínguez-Serrano, M. eta Espinosa Fajardo, J. (2015). *La igualdad de género en la agenda internacional de desarrollo. Avances y desafíos para la integración de un enfoque transformador de género*.

[http://genderobservatory.com/wp-content/uploads/2015/06/G%C3%A9nero\\_y\\_Agenda\\_Post2015\\_InformeGEPDO\\_CORR.pdf](http://genderobservatory.com/wp-content/uploads/2015/06/G%C3%A9nero_y_Agenda_Post2015_InformeGEPDO_CORR.pdf)

Espainiako Gobernua (2017). *II Plan Nacional de Acción de Mujeres, Paz y Seguridad (2017-2023)*.

[http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/SalaDePrensa/Multimedia/Publicaciones/Documents/2017\\_II%20PLAN%20NACIONAL%20ESP%20web.pdf](http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/SalaDePrensa/Multimedia/Publicaciones/Documents/2017_II%20PLAN%20NACIONAL%20ESP%20web.pdf)

Europar Batasuna (2019). *EU Action Plan on Women, Peace and Security (WPS)*. Doc. UE EEAS(2019) 747.

<https://data.consilium.europa.eu/doc/document/ST-11031-2019-INIT/en/pdf>

Eusko Jaurlaritza (d.g.). *Agenda Euskadi Basque Country 2030*.

<https://www.euskadi.eus/pdf/2030-agenda-garapen-jasangarria-desarrollo-sostenible-basque-country.pdf>

- Eusko Jaurlaritzak (2018). *2018-2020 Kanpo Harremanetarako Plana. Euskadi Basque Country*.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accion\\_exterior\\_hemeroteca/eu\\_def/adjuntos/2018-2020-kanpo-harremanetarako-plana-eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accion_exterior_hemeroteca/eu_def/adjuntos/2018-2020-kanpo-harremanetarako-plana-eu.pdf)
- Eusko Jaurlaritzak (2020). *Nazioartekotze Esparru Estrategia 2020ren Eguneratzea*.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accion\\_exterior\\_hemeroteca/es\\_def/adjuntos/estrategia-euskadi-basque-country-2020.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/accion_exterior_hemeroteca/es_def/adjuntos/estrategia-euskadi-basque-country-2020.pdf)
- Gilleri, G. (2020). "'How are you actually doing, ladies?' Indicators of gender equality through the lens of the UN Committee on the Elimination of Discrimination against Women". *The International Journal of Human Rights*, 24(8), 1218-1246.  
<https://doi.org/10.1080/13642987.2020.1717474>
- Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Nagusia (2020a). *Eusko Jaurlaritzak, 2017-2020 Legegintzaldian, giza eskubideen eta bizikidetzaren arloan sortutako dokumentuen bilduma (Proiektu orokorra)*. Eusko Jaurlaritzak.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc\\_compilacion\\_2017\\_2020/eu\\_def/adjuntos/1-proiektu-orokorra.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc_compilacion_2017_2020/eu_def/adjuntos/1-proiektu-orokorra.pdf)
- Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Nagusia (2020b). *Eusko Jaurlaritzak, 2017-2020 Legegintzaldian, giza eskubideen eta bizikidetzaren arloan sortutako dokumentuen bilduma (Nazioarterako ekarpena)*. Eusko Jaurlaritzak.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc\\_compilacion\\_2017\\_2020/eu\\_def/adjuntos/9-nazioarterako-ekarpena.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc_compilacion_2017_2020/eu_def/adjuntos/9-nazioarterako-ekarpena.pdf)
- Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandataria (2012). *Indicadores de derechos humanos. Guía para la medición y aplicación*.  
[https://www.ohchr.org/Documents/Publications/Human\\_rights\\_indicators\\_sp.pdf](https://www.ohchr.org/Documents/Publications/Human_rights_indicators_sp.pdf)
- Global e-Quality elkarteak (2010). *Guía para la elaboración de Indicadores de Género (IG)*. Gaztela-Mantxako emakumearen institutua.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila (2017). *Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoa (GBPPE 2020)*.  
<https://www.euskadi.eus/gobernantza-eta-berrikuntza-publikoko-2020-plan-estrategikoa/jarraipena-eta-ebaluazioa/web01-pegip/eu/>
- Governance Statistics Praia City Group (2020). *Handbook on Governance Statistics*.
- Grasa, R. (2010). *Cincuenta años de evolución de la investigación para la paz. Tendencias y propuestas para observar, investigar y actuar*. Oficina de Promoción de la Paz i dels Drets Humans.  
[https://www.gencat.cat/governacio/pub/sum/dgrip/RxPau\\_4\\_cast.pdf](https://www.gencat.cat/governacio/pub/sum/dgrip/RxPau_4_cast.pdf)
- GREVIO (2016). *Questionnaire on legislative and other measures giving effect to the provisions of the Council of Europe Convention on Preventing and Combating Violence against Women and Domestic Violence (Istanbul Convention)*. Europako Kontseilua.  
<https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=09000016805c95b0>

- Hinds, B. eta Donnelly, D. (2014). *Women, Peace and Security: Women's Rights and Gender Equality. Developing and Applying Women, Peace and Security Practice in Northern Ireland/Ireland*. Community Foundation for Northern Ireland (CFNI).  
[https://wrda.net/wp-content/uploads/2017/05/Toolkit\\_Booklet.pdf](https://wrda.net/wp-content/uploads/2017/05/Toolkit_Booklet.pdf)
- Howe, P. (2019). "The triple nexus: A potential approach to supporting the achievement of the Sustainable Development Goals?" *World Development*, 124.  
<https://doi.org/10.1016/j.worlddev.2019.104629>
- Irlandako Gobernua (2019). *Ireland's third National Action Plan for the implementation of UNSCR 1325 and related resolutions (2019-2024)*.  
<https://www.dfa.ie/media/dfa/ourrolepolicies/womenpeaceandsecurity/Third-National-Action-Plan.pdf>
- Lombardo, E. eta Meier, P. (2016). "Policy", in L. Disch eta M. Hawkesworth (arg.), *The Oxford Handbook of Feminist Theory*. Oxford University Press.
- Martija Rodrigo, G. X. et ál (d.g.). *Coherencia de políticas para el desarrollo. Análisis de la política de internacionalización empresarial del Gobierno Vasco*. Euskadiko GGKEen koordinakundea. 2020ko azaroaren 30ean kontsultatua.  
[https://omal.info/IMG/pdf/informe\\_pie\\_gobierno\\_vasco\\_informe\\_completo\\_.pdf](https://omal.info/IMG/pdf/informe_pie_gobierno_vasco_informe_completo_.pdf)
- Mendia Azkue, I. eta Guzmán Orellana, G. (2019). *Genero-ikuspegia gatazketan: bakegintzaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako ekintza feministarekin bat egiten duen nazioarteko lankidetzarantz*. Hegoa. Bilbo.
- Mujeres en Zona de Conflicto (2013). *Construcción de indicadores de género. Monitorizando la Resolución 1325 de la ONU*. Kordoba.
- Myrntinen, H., Shepherd, L. eta Wright, H. (2020). *Implementing the Women, Peace and Security Agenda in the OSCE Region*. OSCE eta Center for Women, Peace and Security.  
<https://www.osce.org/files/f/documents/3/4/444577.pdf>
- NBE Emakumeak (2015a). *Guidebook on CEDAW General Recommendation No. 30 and the UN Security Council Resolutions on Women, Peace and Security*.  
<https://www.unwomen.org/-/media/headquarters/attachments/sections/library/publications/2015/guidebook-cedaw-general-recommendation-30-women-peace-security-en.pdf?la=en&vs=1850>
- NBE Emakumeak (2015b). *Preventing conflict, transforming justice, securing peace: A Global Study on the Implementation of the United Nations Security Resolution 1325*.  
<https://www.refworld.org/pdfid/5724aba34.pdf>
- NBEren Batzar Nagusia (2015). *Transformar nuestro mundo: La Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible*. A/70/L.1.  
[https://unctad.org/system/files/official-document/ares70d1\\_es.pdf](https://unctad.org/system/files/official-document/ares70d1_es.pdf)
- NBEren Batzar Nagusia (2017). *Revisión cuatrienal amplia de la política relativa a las actividades operacionales del sistema de las Naciones Unidas para el desarrollo*. A/RES/71/243.  
<https://undocs.org/es/A/RES/71/243>

- Niemi, J. eta Peroni, L. (2020). *The Istanbul Convention as a Response to Violence: Voices of a Young Generation*. Monash University.  
<https://www.monash.edu/arts/gender-peace-security/news-and-events/articles/the-istanbul-convention-as-a-response-to-violence-voices-of-a-young-generation>
- O'Rourke, C. eta McMinn, K. (2013). *Baseline Study for a Toolkit on Women and Peacebuilding (Northern Ireland/Ireland) in Context of United Nations Security Council Resolution 1325*.  
<https://pure.ulster.ac.uk/en/publications/baseline-study-for-a-toolkit-on-women-and-peacebuilding-northern--3>
- Oxfam Internacional (2019). *El nexo entre la acción humanitaria, el desarrollo y la consolidación de la paz ¿qué implica para organizaciones con múltiples mandatos?* (Oxfamen eztabaidarako agiria).  
<https://oxfamilibrary.openrepository.com/bitstream/handle/10546/620820/dp-humanitarian-development-peace-nexus-260619-summ-es.pdf?sequence=3&isAllowed=y>
- Patten, P. (2018). "Unlocking the potential of CEDAW as an important accountability tool for the women, peace and security agenda", in *The Oxford Handbook of Gender and Conflict* (171-184). Oxford University Press.
- Pautasi, L. eta Gherardi, N. (2015). *Guía Práctica para la Aplicación del Sistema de Indicadores de Progreso para la Medición de la Implementación de la Convención de Belém do Pará*. AEE.  
<https://www.oas.org/es/mesecvi/indicadores.asp>
- Peinado, M. (2013). "Spain Case", in CEIPAZ eta WILPF España (arg.). *UNSCR 1325 in Europea. 20 case studies of implementation*. European Peacebuilding Liaison Office.  
[https://eeas.europa.eu/archives/features/features-working-women/working-with-women/docs/eplo-20-case-studies\\_en.pdf](https://eeas.europa.eu/archives/features/features-working-women/working-with-women/docs/eplo-20-case-studies_en.pdf)
- Rana, B. (2019). *Statement Marking 40th Anniversary of CEDAW*.  
<https://www.ohchr.org/SP/HRBodies/HRC/Pages/NewsDetail.aspx?NewsID=25443&LangID=S>
- Solanas, M. (2017). *Los retos pendientes del II Plan Nacional e Acción sobre Mujeres, Paz y Seguridad*.  
[http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano\\_es/contenido?WCM\\_GLOBAL\\_CONTEXT=/elcano/elcano\\_es/zonas\\_es/ari82-2017-solanas-retos-pendientes-ii-plan-nacional-accion-mujeres-paz-seguridad](http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/ari82-2017-solanas-retos-pendientes-ii-plan-nacional-accion-mujeres-paz-seguridad)
- Struckmann, C. (2018). *A postcolonial feminist critique of the 2030 Agenda for Sustainable Development: A South African application*. *Agenda*, 32(1), 12-24.  
<https://doi.org/10.1080/10130950.2018.1433362>
- Villelas Ariño, A., Villelas Ariño, M. eta Urrutia Arestizábal, P. (2020). *La experiencia de AHOTSAK: Mujeres por el diálogo en el conflicto vasco*. *Quaderns de Construcció de Pau*, 28. zkia., Escola de Cultura de Pau eta Democratic Progress Institute.  
[https://escolapau.uab.cat/img/qcp/QCP28\\_Ahotsak.pdf](https://escolapau.uab.cat/img/qcp/QCP28_Ahotsak.pdf)
- WILPF (2019). *Sustainable Development and the Women Peace and Security Agenda: Synergies for Action*.  
<https://www.peacewomen.org/node/103654>